




Gauza bitxiak ikus litezke atzo zabaldu zuten museoan.

MIKEL UHARTE

Natur Zientzietako Museoa ireki du Nafarroako Unibertsitateak

Mende honetan bildutako 6.000 ale ikusgai Lekarozko Ikastegian

Alberto Barandiaran / Iruñea

Lekarozko Ikastegian ehun urtetan bildutako sei milatik gora aleak nagusi direla, atzo inauguratu zuten Nafarroako Uniber-

tsitateko Natur Zientzietako Museoa, Nafarroan desagertzeaz dauden espezieak ez ezik —hontza, ugatza, otsoa...— mundu guztiko tximeletak, barraskiloak eta mineralak biltzen dituen.

PAZIFIKOKO itsasertzean jasotako munduko barraskilorik handiena —Melangenidae izenekoa—, Bidasoa aldean gutxi ikusi duten 65 zentimetrotako amorraina, bi buruko txekorra edo anakonda bat dira, besteak beste, Miguel Sanz lehendakariak atzo inauguratu zuen Zientzietako Museoaren bitxitasun zenbait. Natur Zientzietako Fakultatearen eraikinaren solairuetan banatuta, Nafarroan atzotik ikus daitekeen ederrena da, gutxitan jarri baita jendearen esku horrelako aberastasun botanikoa.

Lekarozko Ikastetxean ia mende baten zehar kaputxinoek bildutako ondarea da museo honen alorrik joriena.

Ikastetxe honek 1989an itxi zituen ateak, eta bere ondarsunak Nafarroako Unibertsitateak erosi zituen, aleak erakutsi egingo lirakeela hitzartu ondoren. Bertan zeuden mundu zabalean barreiatutako kaputxinoek bidalitako ale bereziak ez ezik, Bidasoa aldean harrapatutako ugaztun, arrain eta ale bitxiak ere, hala arranoak, ugatzak eta otsoak nola neurri bereziko amorrainak, esan bezala. Museoko arduradun Rafael Jordanak atzo azaldu zuenez, azken hamar urteak unibertsitateko kideek ale horiek zaharberritzen eman dituzte, eta batzuk berreskuratu egin dituzte, oso egoera kaskarrean zeu-

den arren. Jordanak ere azpimarratu zuen ehunen produktzioa azaltzen dituzten panelak «gaur egungo ikusentzunezkoen benetako aitzindariak», bere hitzetan.

Bilduma aparta honi gehitu zitzaion Jose del Rio bildumagilearen itsas-barraskilo sorta ederra —2.500 ale inguru, mundu osokoak— eta Jaime Anfruns kataluniarak utzitako Tropikoko tximeleta bilduma ere.

Ale guztiak Zientzietako Fakultatean daude ikusgai, asteazken eta ostegunetan 16:00etatik 18:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00ak arte. Sarrera doan da, eta talde nagusiendako gidariak izanen dira.

l a b u r r e a n

■ 21 urteko gazte irundar bat hil da Andoaingo trenak harrapatuta

MUTIL gazte bat hil zen atzo trenak Andoaingo apeaderoan harrapatu ondoren. Goizeko 07:30etan gertatu zen istripua eta 21 urteko A.C.A. irundarra momentuan hil zen. Inolako agirik ez zeramanez, gorpua identifikatzen laguntzeko deialdia egin zuen Ertzaintzak. Antza denez, hildakoa lanera zihoan, laneko arropa eta bazkaria baitzeramatzan. Istripuaren zergatiak eta nondik norakoak ez dira oraindik argitu. x

■ Kartzelan 20 urte pasatu dituen preso batentzako eskatu zen akordio parlamentarioa betetzeko eskatu du IUK

DUELA 20 urte baino gehiago kartzelan dagoen 42 urteko Mariano Jimenez Abajo preso soziala Iruñeko kartzelara eramateko eskatu du Izquierda Unidak. Neurri hau eskatu zuen akordio parlamentarioa betetzeko eskatu du alderdi politikoa horrek. Eskaera Gizartekintza osatzen duten talde guztiek onartu zuten joan den urteko azaroan, eta presoak eta senitartekoek ez dute oraindik leku aldatzearen berri izan. x

■ Garoñako zentral nuklearrak 40 eguneko geldialdia egingo du mantenimendu lanak egiteko

GAROÑAKO zentral nuklearra, 40 eguneko gelditu egingo da datorren igandetik aurrera mantenimendu lanak egiteko. Lan hauen artean, 1994. urtean zenbait arrail aurkitu eta konpondu zuten errektorearen zatia aztertuko dute. Hala, uraniozko 118 elementu eta hamar kontrol barra aldatuko dira. Lanok bi urtero egiten dira, eta 40 eguneko luza-tzen dira. Hainbat elkarte ekologistak behin baino gehiagotan salatu dute zentral nuklear hori 30 urtetarako eraiki zutela, eta, beraz, jadanik itxi egin behar dutela. Orain dela hilabete inguru hondakin toxikoak garraiatzen zituen kamioiak istripua izan zuen Sobronen (Araba). Istripuaren ondorioz inor ez zen zauritu. x

■ Pentsionistak termetara joateko deialdia zabaldu du Nafarroako Gobernuak

BALNEARIOAK HIRUGARREN ADINEKOENTZAT 1999 programa aurkeztu zuen atzo Nafarroako Gobernuak. Nafarroako pentsionista eta erretiratuentzako eta euren senar-emazteentzako, termetan 10 eta 12 egun bitarteko 1.838 egonaldi antolatu ditu Foru Erkidegoko Gobernuak. Martxotik azarora, Seron, Zestoa edo Arnedillora joan ahal izango dira programan esku hartu nahi dutenak. Gobernuak egonaldiaren %40 ordainduko du, eta guztia 80 kasutan. Joaten direnek 33.500 eta 40.000 pezeta bitartean ordaindu beharko dute. x

■ Sondika eta Barajas arteko hiru hegaldi jarriko ditu egunero Air Europa konpainiak

AIR EUROPA konpainiak Sondika eta Barajas arteko hiru hegaldi jarriko ditu egunero urtarrilaren 19tik aurrera. Eskaintza hau atzo hasi zen Sondikatik egunero irtengo den hegaldi batekin. Eskaintza finkatzen denean, astero 34 hegaldik egingo dute Bilbo eta Madril arteko ibilbidea. Txartelaren prezioa 6.000 (240 libera) pezetakoa izango da otsailaren 28a arte, eta 12.000 pezetakoa joan-etorrikoa. Air Europa Taldeak, bestalde, bere izena galduko du, eta Globalia Taldea deituko da hemendik aurrera. x

LABek bat egin du EHEren deialdiarekin

■ *Euskal langileei dei egin die larunbatean Iruñera joan eta manifesta daitezen*

Erredakzioa / Donostia

LABek bat egin du EHEk, euskararen ofizialtasuna eskatzeko larunbatean Iruñean egingo duen manifestazioarekin. LABen irudiko, euskara «noizten ari den eraso etengabea» aspaldikoa da, eta Euskal Herrian hizkuntzaren aurka dauden

sektore guztiak indar handiz ari dira haren garapenari ahalik eta oztopo gehien jartzten. Hiru administrazioetan agintariek duten «axolagabekeria» kezkarria iruditzen zaio LABi.

LABen hitzetan, «Bai Euskarari akordioaren ondorioz argi ikusi genuen euskara indartzeko eta haren etorki-

zuna defenditzeko berma bakarra esparru eta sektore guztietara eramatea zela, eta horretarako funtsezkoa zela bakoitzaren konpromiso pertsonala». Ildo horretan, dei egin diete langile guztiei mobilizazioan parte har dezatela, eta «euskararen aldeko konpromisoa» leku guztietara eramateko.